

norberaren babeserako ekipiak
arrisku biologikoari aurre egiteko

6

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Norberaren Babeserako Ekipoa (NBE): langileak bere segurtasun edo osasunerako kaltegarri izan daitekeen **arrisku batetik edo arrisku batzuetatik babesteko** soinean edo berari helduta eraman dezakeen edozein **elementu**, edo helburu horretarako erabiltzen den edozein osagarri edo gehigarri.

Norberaren babeserako ekipoa langileen osasun edo segurtasunerako **arriskuak daudenean** eta arrisku horiek **babes kolektiboko** baliabide teknikoen bitartez edo lan-antolaketakarako neurri, metodo edo prozeduren bitartez behar bezala **saihestu edo mugatu ezin izan direnean** erabiliko dira.

Osasun-zentroetan dagoen arrisku handienetako bat arrisku biologikoa da; beraz, gida honetan agertzen diren norberaren babeserako ekipoa gehienbat arrisku hori gutxitzeko edo kentzeko prestatuak dira.

ARAU OROKORAK

- **Fabrikatzailearen jarraibideak** eskura eduki beti, eta ez baldin badituzu, eska iezazkiozu zure arduradunari.
- Ekipoa erabili, gorde, mantendu eta garbitzeko fabrikatzaileak ematen dituen jarraibide guztiak bete.
- Norberaren babeserako ekipoa **aurreikusitako erabileretarako bakarrik erabil itzazu.**
- **Erabilera pertsonaleko** babes-ekipoak **norberak bakarrik erabili behar ditu.**
- Norberaren babeserako ekipoa behar den eran **erabili eta zaindu itzazu.**
- Norberaren babeserako ekipoa erabili ondoren **dagokion lekuan utz ezazu.**
- Norberaren babeserako ekipoa erabili ondoren izan dezakeen edozein akats, anomalia edo kalteren **berri eman** behar diozu mailaz goragoz zure arduradunari, ekipo horrek **babes-eraginkortasuna gal** dezakeela uste baduzu.

BESTE NEURRI BATZUK

- Zure lanpostua garbi eta txukun eduki.
- Behar diren **txerto guztiak** hartu. Galdetu Lan-osasuneko Unitatean.
- **Ezagutu** aldez aurretik pazienteen **patologiak.**
- Gogoan izan **paziente guztien** odola, odolak kutsatutako jariakinak eta gorputzeko jariakinak infekziosoak izan daitezkeela.
- Langile sanitario guztiek kontu eta arreta handiz erabili behar dituzte **lehenago erabilitako orratz eta tresna zorrotzak.** Behar diren kontuzko neurri guztiak hartu behar dira horiek erabili bitartean eta ondoren, baita horiek garbitzean eta bota behar direnean ere.

Babestu behar duten gorputz-atalaren arabera, norberaren babeserako ekipo ohikoenak hauexek dira:

A. Esku eta besoetako babesgarriak

- Eraso biologikoei aurre egiteko eskularruak.
- Mahuka-erdiak eta mahukak.

Zein lanetan erabili behar diren **eskularruak** arrisku biologikoari aurre egiteko

Eskularruak barrera-babesgarri garrantzitsuenak dira. Tresna zorrotzak erabiltzean ziztadak hartzeko arriskua kentzen ez badute ere, oso babesgarri egokiak dira; izan ere, frogatu ahal izan denez, latexezko eskularruak jantzita ditugula ziztadaren bat hartuz gero, transferitutako odol kopurua %50 gutxiago izaten da gutxienez. Ez dugu ahaztu behar kutsatzeko arriskua, neurri handi batean behintzat, sartzen zaigun odol kopuruaren arabera izaten dela.

Ondoko eginkizunetan erabili behar dira:

- Odola eta gorputzeko beste jariakinak eskuztatzean.
- Paziente baten mukosak edo oso-osorik ez dagoen larruazala ukitzean.
- Odolarekin edo jariakinekin kutsaturiko gauzak, materiala, ekipoa edo gainaldeak erabiltzean.
- Prozedura inbasiboak egitean.
- Langileek larruazaleko ebakiak, zauriak edo lesioak dituztenean.

Erabilera-arauak

- **Babestu zauriak eta ebakiak.** Lanean hasi aurretik, jantzi eskularruak eskuetako larruazaleko lesioak babesteko eta erabili apositu iragazgaitzak (tirita modukoak) gainerako lekuetan.
- Paziente bakoitza atenditu aurretik eta ondoren garbi itzazu eskuak ur eta xaboiarekin, (eskularruak erabilitakoan ere bai) eskuak hogei segundoan gutxienez ur-zorrotadaren azpian jarrita.
- Ondo lehortu eskuak
- Ez erabili eraztunik, bitxirik...
- **Alda itzazu** paziente bakoitzarekin erabili ondoren edo jardueraz aldatzean edota zipriztinduta, hautsita edo zulatuta daudenean.
- Azken kasu horietan, ken itzazu, eskuak berehala garbitu eta beste pare bat jantzi.

B. Arnasbideetarako babesgarriak

- Partikulak, gasak eta lurrinak iragazten dituzten ekipoa.

Zein lanetan erabili behar den **maskara** arrisku biologikoari aurre egiteko

Arnasbideak erabat babesteko erabili behar dira maskarak. Horretarako, maskara ondo probatu eta erabiltzailearen aurpegian behar bezala egokitzen dela egiaztatu behar da.

Ondoko lanetan erabili behar da:

- Jariakinak xurgatzean.
- Aerosolen produkzioarekin zerikusia duten prozedura inbasiboak erabiltzean.
- Odol-zipriztinak edo gorputzeko jariakinak ahoko edo sudurreko mukosetara irits daitezkeela aurreikusten denean.
- Airetik transmitituriko infekzioa izan lezaketen edo badutela egiaztatu zaien pazienteak direnean edo arnas arazoengatik isolatutako pazienteak direnean.
- Endoskopian.
- Arnasketako fisioterapia-ekipoa erabiltzean.
- Hemorragia handietan-eta laguntzen ari garenean.
- Odontoestomatologian.

Erabilera-arauak

- Aurpegian **ondo egokitzen zaizula** egiaztatu.
- Maskara kendu ondoren **garbi itzazu eskuak**.

D. Begietako eta aurpegiko babesgarriak

- Babeserako betaurrekoak, pantailak edo aurpegirako pantailak eta aurpegirako pantaila duten maskarak.

Zein lanetan erabili behar diren **betaurrekoak edo aurpegirako pantaila**

- Zorrotada likidoa duten gailuak eskuztatzean edo erabiltzean.
- Odol-zipriztinak edo gorputzeko jariakinak begiko mukosara irits daitezkeela aurreikusten den lan guztietan.

E. Oin eta hanketako babesgarriak

- Segurtasun-oinetakoak.

Zein lanetan erabili behar diren segurtasun-oinetakoak

- Zipriztintzeko edo zerbaitekin ebaki edo ziztatzeako arriskua izan dezaketen lan guztietan.



Jarraian Ospitaleko zerbitzu batzuk aipatu eta arrisku biologikoari aurre egiteko gomendatutako norberaren babeserako ekipoak adierazten dira.

ZERBITZUA	ARRISKU BIOLOGIKOA	NBEak
Anatomia Patologikoa	• Kutsatutako lagin biologikoak eskuztatzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua. • Aerosolak eta /edo zipriztinak sortzea.	• Mahuka luzeko mantal kirurgikoa eskumuturrekin, hala behar izanez gero. • Eskularru bikoitza erabili. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo ahal bada, segurtasun-pantailak.
Autopsiak	• Kutsatutako lagin biologikoak eskuztatzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua. • Aerosolak eta /edo zipriztinak sortzea.	• Mahuka luzeko mantal kirurgikoa, eskumuturrekin. • Eskularruak. • Botak edo erabili eta botatzeko oinetako-estalkiak. • Ura xurgatzen duen oihalezko mantal fina. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo ahal bada segurtasun-pantailak.
Odol-bankua	• Odola ukitzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua. • Zipriztintzeko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo segurtasun-pantailak.
Hemodialisia	• Odola ukitzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua. • Aerosolak eta /edo zipriztinak sortzea.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo segurtasun-pantailak.
Kanpo-kontsultak	• Kutsatutako pazienteak edo lagin biologikoak eskuztatzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak, horretarako premia dagoenean.
ZIU	• Kutsatutako pazienteak edo lagin biologikoak eskuztatzeiko arriskua. • Odola ukitzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua. • Zipriztintzeko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskarak, edo segurtasun-pantailak.
Esterilizazioaren aurreko lanak	• Kutsatuta egon daitekeen materiala eskuztatzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Laborategiak, mikrobiologiakoak barne	• Kutsatutako laginak eskuztatzeiko arriskua. • Odola eta beste likido organiko batzuk ukitzea. • Aerosolak eta tanta txikiak sortzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Batak, laneko pijamak, mantalak eta abar oihal egokiarekin eginak izango dira eta beren diseinuak babesik handiena emango du. Laborategiko batak aurrealdetik itxiak izango dira eta eskumutur elastikoak izango dituzte. • Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo segurtasun-pantailak. • Beharrezkoa denean, arnasbideak babesteko gailuak erabiliko dira. • Bioaerosolak sortzeiko arriskua dagoenean, Segurtasun Biologikoko Kabinan lan egingo da. (1)
Operazio-gelak	• Kutsatutako pazienteak edo lagin biologikoak eskuztatzeiko arriskua. • Odola eta beste likido organiko batzuk ukitzea. • Aerosolak eta tanta txikiak sortzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Maskara kirurgikoa. • Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Mantal iragazgaitza, horretarako premia egonez gero. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo segurtasun-pantailak.
Errehabilitazioa	• Kutsatutako pazienteak ukitzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak, horretarako premia dagoenean.
Ospitaleko Zerbitzuak	• Kutsatutako pazienteak edo lagin biologikoak eskuztatzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak, horretarako premia dagoenean.
Larrialdiak	• Kutsatutako pazienteak edo lagin biologikoak eskuztatzeiko arriskua. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Medikuntza Nuklearra	• Kutsatutako laginak eskuztatzeiko arriskua.	• Laneko arropa. (2) • Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Onkologia	• Kutsatutako laginak eta pazienteak ukitzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Erradiologia	• Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Laneko arropa (2)
Erradioterapia	• Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Laneko arropa. (2) • Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Mantentze-lanak	• Edozein eratako mantentze-lanak egiten hasi aurretik egon litekeen arriskua ondo neurtu eta horretarako babesik egokiena aukeratu behar da. (3)	• Eskularru industrialekin lan egin.
Garbiketako langileak	• Kutsatutako laginak ukitzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Eskularru industrialekin lan egin.
Irudi bidezko diagnostikoa	• Kutsatutako laginak eskuztatzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak, horretarako premia dagoenean.
Dermatologia	• Kutsatutako laginak eta pazienteak ukitzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Pediatria	• Kutsatutako laginak eta pazienteak ukitzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Psikiatria	• Kutsatutako pazienteak ukitzeiko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak.
Odontologia	• Mukosak, gorputzeko isuriak, nasofaringeko eta arnasbideetako jariatzak. • Aerosolak sortzea. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Behin bakarrik erabiltzeko eskularruak. • Erabili eta botatzeko maskarak, ahoa eta sudurreko mukosa estaliko dutenak. • Zipriztin edo aerosoletatik babesteko hauek erabili: babeserako betaurreko hermetikoak eta maskara, edo segurtasun-pantailak. • Zipriztin ugari sortzen diren lanetan, erabili eta botatzekoak diren mantal plastikoen erabili.
Hondakin biosanitarioen manipulazioa	• Eskueta ziztadak edo zauriak.	• Laneko oinetakoak. • Eskularru industrialak.
Esperimentazio-animaliekin lan egitea	• Atzamarkadak eta hozkadak. • Aerosolak arnastea. • Mukosetarako proiektzioak. • Ziztatzeiko edo ebakitzeko arriskua.	• Eskularruak. (4) • Gomazko botak. • Erabili eta botatzeko maskara. • Berrogeialdia egiteko eremuetan: lanerako eskularru lodiak eta eragin-kortasun handiko maskara.

(1) Gomendagarria da halaber, ateratze-lanetarako beira-arasa egokiak erabiltzea.
(2) Barrerako babesak aipatzen direnean, argi geratzen da horiez gainera erradiazioei aurre egiteko arropa eta babesgarri egokiak ere erabili behar direla.
(3) Adibidez, iturgintza-zerbitzuetan, era guztietako gaixoengandik hustubideetara iritsi diren hondakin organikoak ukitzeiko arriskua dago.
(4) Beharrezkoa denean, atzamarkadak eta hozkadak ez gertatzeko, eskularru lodiak erabiliko dira.